

LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA

6-8 URTE BITARTEKO GARAPENAREN EZAUGARRI OROKORRAK

Etapa erabakigarria da pertsonaren heziketan. Izan ere, etapa honetan, oinarrizko trebetasunak ondo ikasteko oinarriak jartzen dira, balioak bereganatzen dira eta jarrerak garatzen dira.

Lehen zikloko neska-mutilak aktiboak, irudimen handikoak eta gogotsuak dira. Hurbileko errealitateetik ikasten dute, eta jakin-min handia dute ezagutzen ari diren mundu berriarekiko

Lehen Hezkuntzaren hasierako ziklo honetan, haurrek garapen sozialean, pertsonalean, psikomotolean eta kognitiboan aldaketa handiak bizitzen dituzte, eta aurrerapen handiak egiten dituzte *hezkuntzaren ikaskuntzan*.

Garapen soziala: Helduek (gurasoek, irakasleek) zer pentsatzen duten jakiteko interes berezia dute, eta oraindik ere menpekotasun handiko harremanak dituzte helduekin. NI -tik GU-rako aldaketa egiten dute.

Talde bateko kide izateko premia dutenez, ikaskideekin harreman onak dituzte, baina aldakorrak eta laburrak izaten dira. Lagun-taldeak txikiak izaten dira.

Garapen pertsonala: Besteengandik desberdinak direla eta beren sentimendu eta pentsamendu propioak dituztela konturatzen hasten dira, eta norberaren nortasuna argitzeko lehen urratsak egiten dituzte. Autokontzeptua eta autoestimua finkatzen hasten dira pixkanaka. Sexu jakin batekoak direla ohartzen dira. Sexualitateari buruzko jakin-mina haurrak nola jaiotzen diren jakitera mugatzen da, eta errealitateari buruzko gero eta interes handiagoa dutela erakusten du horrek.

Garapen psikomotorea: Behin betiko finkatzen dute lateralitate nagusia (ezkerra edo eskuina), eta gorputz-atalen kontzientzia hartzen dute; hau da, beren gorputza kontrolatzen eta erabiltzen hasten dira. Halaber, esku-begien arteko koordinazioa lortu dute jadanik; trebetasun hori funtsezkoa izango da idaztean.

Arreta handiagoa dute, luzaroago egoten dira adi, eta arreta malgutasun handiagoz banatzeko gai dira, modu orekatuagoan, zereginaren arabera.

Garapen kognitiboa: Oraindik ere, norberaren esperientzian eta bizipenetan oinarrituta antolatzen dute pentsamendua. Horregatik, ingurunearekin harremanetan egon behar dute etengabe, baina gero eta trebetasun handiagoa dute eguneroko jardueretan jarraitasuna eta erregularutasuna hautemateko.

Errealitatea aztertzeko gaitasuna garatzen dute, estimulutik abiatuta, eta estrategia landuagoak ikasten dituzte: erlazioak ezartzea, ordenatzea, sailkatzea... Jakin-min intelektual handia eta gauzen zergatiarekiko interesa erakusten dute.

Errepikatzen diren edo ezagun zaizkien egoeretan memorizatu egiten dute, baina oroimen esanguratsua sendotu behar dute, ikasten dutena aurrez ikasitakoarekin erlazionatzeko.

Hizkuntzaren garapena: Kanpoko munduarekin eta beste pertsonekin komunikatzeko premia sentitzen dute. Beren berdinekin komunikatzeko ahaleginak egiten dituzte. Gogotik saiatzen dira, ideiak emanez, parte hartzen eta besteen ikuspuntuak ezagutzen; hau da, elkarrizketa sozializatuan sartzen dira.

Hizkuntzaren oinarriko egiturak berenganatzen hasten dira.

HELDUAREN PAPERA:

Ezaugarri hauek kontuan izanda, seme-alabekin harremanean gomendagarriak diren hainbat jarrera aipa ditzakegu:

- **Beraien gauzengatik interesa azaldu eta komunikazioa sustatu.** Beraiekin elkarrizketa uneak bilatzea beharrezkoa da, eta beraien bizipenen inguruan hitz egiten utzi behar diegu. Hitz egiteaz gain besteei entzuteko garrantzia azpimarratu behar zaie. Beraiekin atxikimendu afektiboa indartu eta kontentzio emozionala eskaintzeaz gain, egunero aurre egin behar dituzten egoerak kudeatzeko baliabideak eta orientabideak eskainiko dizkiegu.
- **Beraien autonomia sustatu eta ardurak eman.** Haurtzaroaren lehenbiziko urteetatik, ezinbestekoa da beren adinari egokituta eta dauzkaten gaitasunen arabera, gauzak beren kabuz egiten hastea eta poliki ardurak hartzea. Haurraren autoestimurako, berarengan segurtasuna indartzeko eta autonomia garatzeko, oso garrantzitsua da. Modu honetan, bere objektu pertsonalen ardura hartzea, etxeko eginbeharretan (gela jaso, erosketa sinpleak...) parte hartzea eta ardurak izatea ezinbestekotzat joko ditugu. Prozesu horrek guztiak, egun batetik bestera lortzen ez denez, helduaren segurtasuna eta laguntza behar ditu, eta gainbegiraketa eta kontrola beharrezkoak izango dira.
- **Arauk jarri eta beraien frustrazioa kudeatzen lagundu.** Haurrek arauak eta autoritatea behar dituzte, hauek segurtasuna ematen baitiete. Beren desioen eta frustrazioaren autorregulazioa lortzeko funtsezko aldagaiak izango dira. Haurrek nahi duten guztia nahi duten moduan beti edukitzea ezinezkoa da. Ezezkoak jasotzen ikasi behar dute. Honek sortzen duen haserrea eta frustrazioa kudeatzen lagundu behar diegu, pazientzia eta lasaitasunez hitz eginez.

PRIMER CICLO DE EDUCACIÓN PRIMARIA

Características generales del desarrollo de 6 a 8 años

Es una etapa decisiva en la educación de la persona. Y es que en esta etapa se ponen las bases para un buen aprendizaje de las habilidades básicas, se adquieren valores y se desarrollan actitudes.

Los niños y niñas de primer ciclo son activos, con mucha imaginación y muy entusiastas. Aprenden de la realidad cercana, y tienen mucha curiosidad por el nuevo mundo que están conociendo.

En este ciclo inicial de la Educación Primaria, los niños y niñas experimentan grandes cambios en el desarrollo social, personal, psicomotor y cognitivo, así como grandes avances en el aprendizaje del lenguaje.

Desarrollo social: *tienen especial interés en saber lo que piensan los adultos (padres, profesores), y siguen manteniendo relaciones de gran dependencia con los adultos. Hacen el cambio de YO al NOSOTROS.*

Al tener necesidad de formar parte de un grupo, mantienen buenas relaciones con sus compañeros, pero son variables y breves. Los grupos de amigos suelen ser pequeños.

Desarrollo personal: *comienzan a darse cuenta de que son diferentes de los demás y de que tienen sus propios sentimientos y pensamientos, y dan los primeros pasos para clarificar su propia identidad. El autoconcepto y la autoestima empiezan a asentarse poco a poco. Se dan cuenta de que son de un sexo determinado. La curiosidad por la sexualidad se limita a saber cómo nacen los niños, lo que demuestra su creciente interés por la realidad.*

Desarrollo psicomotor: fijan definitivamente la lateralidad principal (izquierda o derecha), y toman conciencia de las partes del cuerpo, es decir, comienzan a controlar y utilizar su cuerpo. Asimismo, ya han conseguido la coordinación entre los ojos y las manos, una habilidad fundamental en la escritura.

Poseen mayor atención, permanecen más tiempo atentos y son capaces de distribuir la atención con mayor flexibilidad, de forma más equilibrada, en función de la tarea.

Desarrollo cognitivo: siguen organizando el pensamiento en base a la propia experiencia y vivencias. Por eso, tienen que estar en contacto permanente con el entorno, pero cada vez tienen mayor habilidad para percibir continuidad y regularidad en las actividades cotidianas.

Desarrollan la capacidad de analizar la realidad a partir del estímulo, y aprenden estrategias más elaboradas: establecer relaciones, ordenarlas, clasificarlas.. Muestran una gran curiosidad intelectual y un interés por el porqué de las cosas.

Memorizan situaciones repetidas o conocidas, pero deben reforzar una memoria significativa para relacionar lo que aprenden con lo aprendido anteriormente.

Desarrollo lingüístico: sienten la necesidad de comunicarse con el mundo exterior y con otras personas. Intentan comunicarse con sus iguales. Tratan de aportar ideas, participar y conocer los puntos de vista de los demás, es decir, entran en el diálogo socializado.

Se empiezan a adquirir las estructuras básicas del lenguaje.

FUNCIÓN DEL ADULTO:

Teniendo en cuenta estas características, podemos señalar una serie de actitudes recomendables en la relación con los hijos e hijas:

- **Mostrar interés por sus cosas y fomentar la comunicación.** Es necesario buscar momentos de diálogo con ellos y dejarles hablar de sus vivencias. Además de hablar, hay que subrayar la importancia de escuchar a los demás. Además de reforzar su apego afectivo y ofrecerles un sentido emocional, les ofreceremos recursos y orientaciones para gestionar las situaciones a las que se enfrentan diariamente.
- **Promover su autonomía y darles responsabilidades.** Desde los primeros años de la infancia, es imprescindible que, adaptados a su edad y en función de sus capacidades, comiencen a hacer las cosas por sí mismos y asuman responsabilidades lentamente. Para la autoestima del niño, para reforzar la seguridad en él y desarrollar la autonomía, es muy importante. De esta forma, se considera imprescindible hacerse cargo de sus objetos personales, participar en las tareas domésticas (recoger la habitación, compras sencillas...) y tener responsabilidades. Todo este proceso, al no conseguirse de un día para otro, requiere de la seguridad y del apoyo del adulto, y serán necesarias la supervisión y control.

Poner normas y ayudarles a gestionar su frustración. Los niños necesitan normas y autoridad, ya que éstas les dan seguridad. Serán factores clave para conseguir la autorregulación de sus deseos y de su frustración. Que los niños tengan siempre todo lo que quieran y como quieran es imposible. Tienen que aprender a recibir negativas. Debemos ayudarles a gestionar el enfado y la frustración que esto genera, hablando con paciencia y serenidad.